

ENTZUNALDI KOMENTATUA  
AUDICIÓN COMENTADA

## AKAUZAZTE DANOK

Martxoaren 12a ostirala / Viernes 12 de Marzo  
19,00 / Arteleku



Seguruaski azken hamabost urteotako Euskal herriko (anti)rock talde pertsonal eta ausartena den Akauzazte (orain Akauzazte Danok) taldearen diska berriaren entzunaldi berezia proposatzen dizuegu ekitaldi honen bidez. Sei urte luzeko lana suposatu duen lan honek, beraien baliabideekin grabatu eta nahasi eta ekoitzia izan denak, ez du taldearen orain arteko ibilbide paregabea baieztatu bertzerik egiten. Are gehiago, Azkoitin jaiotako musika egitasmo honek, bere hastapenetan abiatutako ibilbideak oraindik hamaika zeruertz dituela zain uzten du agerian.

*“Akauzazte Danok” lanak irauten dituen 59 minutuetan gitarra elektriko eta akustiko desberdinak, loop desberdinak eta egitura melodiko desberdinak pixkanaka baina aldi berean modu bizian garatzen dira. Oharkabean guztiz harrapatzen gaituen sare sendoa osatzen dute, motel-motel entzuleak itozten gaituena. Taldeak sortzen dituen ehundurak urratzaileak dira, latzak, lakarrak eta gogorak. Soinu blokeak behin eta berriz errepikatzen dira eta eragin hipnotikoa dute, jatorri tribaleko perkusioak egiturari erritmo irmoz eta indar basatiz eusten dion bitartean.*

*(Diskaren aurkezpen ofizialetik ateratako zatia)*

Artelekuko AUDIOLABek antolaturiko aurkezpen honetan Akauzazte Danok taldeko kideek diskaren sorkuntzaren nondik norakoak azalduko dituzte eta diska osatzen duten kantu zenbait 5.1 surround sisteman entzutera emango dituzte, Anjel Katarain soinu teknikariak espreski modu hortara prestatu bezala.

info gehiago: [www.artoartian.org/akauzazte](http://www.artoartian.org/akauzazte)

-----

Este evento propone una audición especial del último trabajo de la banda Akauzazte (ahora Akauzazte Danok), probablemente una de las formaciones (anti)rock más personales y arriesgadas que se hayan conocido en Euskal herria durante los últimos 15 años. Tras seis años largos de elaboración, este nuevo disco grabado, mezclado y autoproducido con sus propios medios, no hace más confirmar la intachable trayectoria de Akauzazte. Aún más, demuestra que el camino que este proyecto musical nacido en Azkoitia inició en su momento todavía tiene muchos horizontes por delante.

*A lo largo de los 59 minutos de duración de “Akauzazte Danok” las distintas capas de guitarras eléctricas y acústicas, los múltiples loops y las diversas estructuras melódicas van evolucionando poco a poco, pero intensamente, y tejen una densa tela de araña que nos atrapa sigilosamente y nos asfixia a cámara lenta. Las texturas que crea el grupo son abrasivas, ásperas, rasposas y duras. Los bloques de sonido se repiten con insistencia y provocan un efecto hipnótico mientras la percusión, de carácter tribal, apuntala el armazón con ritmos contundentes y fuerza salvaje.*

*(Extracto del texto de presentación oficial del álbum)*

En esta presentación organizada por AUDIOLAB Arteleku, varios miembros de Akauzazte Danok nos explicarán los detalles del proceso de trabajo que ha supuesto este nuevo trabajo y nos ofrecerán una audición de varios tracks del mismo en formato 5.1 surround, elaboradas especialmente por el técnico de sonido Anjel Katarain.

+ info: [www.artoartian.org/akauzazte](http://www.artoartian.org/akauzazte)